

Erf.: ESE bidez argiteria kaleratzeko baldintza agirien eta deialdiaren onarpena
Espediente zk.: 15/

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,
jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

ESE baten bidez herriko argiteria mantentzeko baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea.

Nork eskatu dauen txostena

Ofizioz.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Bakarra: ESE baten bidez herriko argiteria mantentzeko baldintza-agiriak prestatu dira eta, Zerbitzu batzordeak, aldeko irizpena emon dau.

b) Oinarri juridikoak

Bakarra: Kontratuaren iraunaldia eta kopurua kontutan eukita, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua onartzen dauan 3/2011 EDLaren 2. Xedapen gehigarriaren arabera, baldintza agiriak onartzea Osoko Bilkureari jagoko.

Era berean, Lege bereko 47.1 eta 47.2.1) artikulua jarraiki, onartutzat emoteko beharrezko gehiengoa, gehiengo soila da.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2015ko apirilaren 27an

Karmele Muñoa Arrigain
Jarduneko Idazkaria